

GALAXIAKO



BILATUENA

JOHN KLOEPFER

ILUSTRAZIOAK

NICK EDWARDS

desclée

GALAXIAKO



BILATUENA

ZONBI-EHIZTARIAK BILDUMAREN EGILEA


JOHN KLOEPFER

ILUSTRAZIOAK

NICK EDWARDS

desclée





luntasuna hedatuz joan zen udalekuan beste egun baten amaiera iristen zela. Eguna, bai, arrunt samarra izan zen, baina udaleku hura ez zen inondik ere arrunta. Ipar-mendebaldeko Horizonteak Estatu Batuetako ZTIM (zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika) udalekurik onena zen. Ipar-mendebaldeko Horizonteak udalekuko ume guztiek gauza bat komunean zuten. Denen ametsa zen hurrengo zientzialaririk garrantzitsuena izatea: aurkikuntza aitzindariak egitea, beren konpainiak sortzea eta egunen batean aberats bihurtzea. Gehienak ziurrenik unibertsitate-irakasle xebreak baino ez ziren izango azkenean, baina beti zegoen gauza handiak lor litzakeen norbait. Eta udaleku honetan, horrela-ko gutxi batzuk, behintzat, bazeuden.

Kevin Brewer horietako bat zen. Dena interesatzen zitzaion: fisika, biologia eta kimika. Gainera, matematiketan trebea zen. Kevini errobotika gustatzen zitzaion batik bat, makinak beren kabuz mugitu daitezela lortzea edo baita beren kabuz pentsa dezatela ere. Baina une hartan Kevinen kezka bakarra Ikerketa Lehiaketa irabaztea zen, zientzia-udalekuko txapelketarik garrantzitsuena, alegia, eta Alexander Russ garaitzea, lau urtez bere etsairik handiena izan zena.

Kevin ez zen inola ere izango bigarrena urte hartan, aurreko uda guzti-guztietan bezala; izan ere, urte hartan IMH udalekuko Ikerketa Lehiaketako irabazleak inoizko saririk onena jasoko zuen: Honoluluko Nazioarteko Zientzia Lehiaketan parte hartzeko zuzeneko toki bat. Talde irabazlea Hawaiiira hegazkinez joan ahalko zen eta mundu osoko umeekin lehiatuko zen. Eta lehenengo postua lortuz gero, berak eta bere lagunek NASAren transbordadore espazial batean benetako astronautekin batera espazioan bidaiatzeko aukera izango zuten.

Kevin basoaren ertzean zegoen, galtza bakero ilunekin eta kirol-jertse beltz batekin jantzita, gauarekin nahasi nahian. Ordubete eskas geratzen zen etxeratze-ordua iristeko. Azkar egin behar zuen.

—Prest? –galdetu zien Kevinek bere hiru adiskide minei. Warner Reed, Tara Swift eta TJ Boyd ziren Kevinen lagunak, eta haiek ere goitik behera beltzez jantzita zeuden, Kevin bezala.

Tara Swiftek arretaz begiratu zuen Kevinen buaren gainetik, beltz koloreko armazoi potolodun betaurrekoak sudur-puntan dantzan zituela. Tara, Kevin eta beste mutilak baino pixka bat garaiagoa zen, ile beltz eta kizkurra zeukan eta mototsetan orraztuta zeraman. Warner kenduta (Kevinen adiskiderik minena zen), Tara zen Kevinek udalekuan gehien atsegin zuen pertsona. Super azkarra eta ezer gutxirekin gauzak eraikitzen oso trebea izateaz gain, konpainia bikaina zen, besterik gabe berarekin egoteko.

—Ziur ideia ona dela? –galdetu zion Tarak Kevin.

—Baita zera ere! –esan zion Warnerek—. Honek ez du zentzurik! –Warner udalekuko umerik azkarrenetako bat zen arren, ez zitzaion zientzia asko interesatzen eta Ikerketa Lehiaketak bost axola zion. Bideojokoekin jolastu, komikiak irakurri eta beldurrezko pelikulak ikusi besterik ez zuen egin nahi. Beti esaten zuen bere gurasoek etxetik kanpo nahi zutelako bakarrik joaten zela udaleku hartara, bai-

na Kevinek bazekien Warneri han egotea gustatzen zitzaioa.

—Tira –esan zien Kevinek–. Astebete baino gutxiago falta da Ikerketa Lehiaketarako, eta ez daukagu ezer.

Ordura arte ia uda osoa igaro zuten eskolako lanak egiten dituen ordenagailu-programa bat diseinatzen saiatzen, baina programari fotosintesiari buruzko idazlan bat egiteko agindu ziotenean lortu zuten gauza bakarra izan zen argazkilaritzaren eta sintetizatzaile elektronikoaren historiaren inguruko bostehun hitzeko nahaste-borraste bat. TJ softwarea birprogramatzen saiatu zen, baina azkenean gogaikarriagoa zen eskolako lanak egiteko tresna erabiltzea lanak zuzenean egitea baino. Nolanahi ere, Kevinek ondo zekien 10 bat merezi zuen idazlan bat baino gehixeago beharko zutela Alexander garaitzeko.

—Kevin –esan zion Warnerek, etsita hasperen eginez–. Inor baino gehiagotan etorri zara liburu-irenslez jositako udaleku honetara. Dagoeneko jakin beharko zenuke Alexander Russek ez duela sekula galduko. Orduan, zergatik ez dugu bikarbonatozko sumendi bat egiten eta kito?

Kevinek arnasa hartu zuen.

—Ezin dugu amore eman. Alexander eta bere babo koadrila zer ari diren prestatzen jakingo bage-
nu, beharbada irabazteko aukeraren bat izango ge-
nuke –Alexander kirten hutsa zen, bere garaipenak
Kevini muturretik pasatzen zizkion, eta hori gutxi
balitz bezala, gezurti eta tranpati hutsa zen. Alexan-
derren aitak teknologia-konpainia arrakastatsu bat
zuen, eta ez zuen inolako arazorik bere semeari ur-
tero “laguntzeko” Ikerketa Lehiaketan. Egia esan,
gehiegixko laguntzen zion, Kevinen ustez.


TJk baiezkoa egin zuen buruaz, ados zegoela
adierazteko. Ez zen oso berritsua. Udalekuko sua-
ren inguruko zurrumurruek zioten TJk erroboti-
ka-esperimentu trakets batean laringea mindu zue-
la, baina Kevinek bazekien txutxu-mutxuak baino
ez zirela. Lehen hezkuntzatik izan zen TJren ikas-
kidea. Beti izan zen isil samarra, baina beharrezkoa
zenean, eskolan hitz egiten zuen. Udalekuan zegoe-
nean, ordea, ez zuen txintik ere esaten. Egia esan,
TJk baino ez zekien zergatik erabaki zuen bat-ba-
tean hitz egiteari uztea.

—Beno, babalore sorta –esan zien Tarak, ba-
soaren iluntasunean barrena begira–, egingo badu-
gu, egin dezagun. Nor izango da lehena? –Sudurra
hatzarekin ukitu zuen–. Ni ez –esan zuen, eta War-

nerek eta TJK berehala ukitu zuten sudurra, Kevin gertatzen ari zenaz ohartu baino lehen-. Kevin joango da. -Baina Kevini ez zitzaion axola. Lehena izan nahi zuen.

—Ondo da, jarraitu atzetik —esan zien Kevinek ahopean, baso ilunean murgiltzen zela. Haize leun eta epel batek hostoak mugitu zituen eta hontz barkarti batek ulu egin zuen zuhaitzen adaburuetatik, Kevin eta bere lagunak basoaren erdiko soilgunera hurbiltzen zirela.

Kevin isilean mugituz zuhaitz baten atzean ezkutatu zen. Warner, TJ eta Tara sakabanatu eta



zuhaitzen atzean babestu ziren. Kevin gogor ari zen saiatzen zaratarik egin gabe arnasten. Bere bihotzaren taupadak entzun zitzakeen. Astiro-astiro, zuhaitzaren enborraren bestaldera begiratu zuen.

Han zeuden.

Distira leun batek bi pertsona argitzen zituen. Kevinek Lukeren eta Danteren siluetak zirela ikusi zuen, Alexanderren taldekideenak, alegia. Haien atzean, platertxo baten formako plataforma bat airean hegan ari zen lurretik metro batera, gero metro eta erdira eta gero hiru metrora.

Norbait plataformaren gainean zegoen. Lurra eta lurreko hostoak gorantz jirabiraka hasi ziren tramankuluaren azpitik haize-bolada bat atera zenean.

Kevinek eta Warnerek elkarri begiratu zioten. Warnerek begiak zabal-zabalik zituen harridura hutsegatik. Warnerek plater hegalaria seinlatu eta honakoa ahoskatu zuen: mundiala.

Orduan, asmakizun horren kontra lehiatu behar zuten. Alexanderrek eta bere taldeak, Matematikaren Friki Harropuzek, aerolabaingailu bat eraiki zuten. Kevinek goragalea sentitu zuen, ultzera baten hasiera balitz bezala.

Aerolabaingailua jaitsi egin zen, MFH taldearen burua gainean zeramala, eta hasperen baten modu-

ko soinu mekaniko batekin itzali zen. Alexander Handia salto batez jaitsi zen lurrera bere goi-teknologiako gurditik, pozarren oihuka, eta bere kideei bostekoa eman zien. Hiru mutilek bular-talkekin eta orangutanen hotsak eginez ospatu zuten.

Kevinek uste baino gogorragoa izango zen. Bere taldekideei elkartzeko seinaleak egin zizkien, eta TJ, Tara eta gero Warner isilka itzuli ziren, itzaletan murgilduz. Kevin oin-puntetan urruntzear zegoela, bere pausoe kin katagorri bat ikaratu zuen. Ziztuan, ile-bola beldurtia zuhaitzen goiburuetara igo zen, eta hostoak modu zarata-tsuan astindu zituen.

Ai ama... Kevinek arnasari eutsi zion, eta bularra estutu egin zitzaion.

Alexanderrek eskuargia zarataren jatorrira zuzendu zuen.

—Nor dabil hor? —galdetu zuen errege baten nagusitasun-jarrerarekin.

Kevinek ez zuen zirkinik ere egin zuhaitzaren atzean. Pultsua bizkortu egin zitzaion ahotsak hurbiltzen zitzaizkiola. Mutilen linternen argiak iluntasuna laser-ezpatak balira bezala mozten zuen.

Kevinek tripa sartu zuen, arnasari ahal beste eutsi zion, eta gero zaratarik gabe bota zuen.



—Nor dabil hoor? –galdetu zuen Lukek doinu jostari baina maltzurrarekin.

Kevinek ihes egin nahi zuen, baina ez zen mugitzaera ausartzen. Hurbilegi zeuzkan. Hiru baten kontra. Ez zitzaizkion bere probabilitateak gustatzen.

—Irten hortik, zaudena zarela ere... –kantatu zuen Dantek.

—“Zauden lekuan zaudela ere” esaten da –zuzendu zion Alexanderrek—. Ez “zaudena zarela”.

—Baina ez dakigu nor den den ere –esan zuen Dantek.